

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Oraina besterik



ARITZ GALARRAGA

Zutabe honek ez dauka hilberrien tarte izateko batere bo-kaziorik, baina Jean Claude Carriere ere zendu dela aipatu beharra dut –eta irudipena daukat jende ugari hiltzen ari dela azkenaldian, ez bakarrik birusagatik–. Tira, Carriere, gidoigile aski ezaguna, Luis Buñuelen film ezagun ugari idatzi zituen. Bere heriotzak, hain zuzen, Buñuelen memoria liburua ekarri dit gogora, *Mon dernier soupir*, gazte nintzela irakurri eta oroitzapen ezin hobea utzi zidana. Esan daiteke gidoigileak berak idatzi ziola: “Ez naiz lumagizona. Hizketaldi luzeen ondoren, eta kontatu nion guztiari fidel, liburu hau idazten lagundu zidan Jean Claude Carriere”.

Kontakizun bikaina, anekdota bilduma paregabea, XX. mendeko zinegilerik garrantzitsuenetako –eta, pertsonalki, maitatuenetako– baten barrenek erakusten dizkizu, ezer ezkutatze esfortzurik egin gabe –liburu osoa zeharkatzen duen urrin matxtoa, esaterako–. Azaltzen diren ia kontu guztiak dira benetan jakingarriak, are batzuk praktikoak; adibidez, dry-martini bat ganoraz nola egin: izotz gogorraren gainera “Noilly-Prat” tanta batzuk bota, eta kafe koilarakadatxo erdi bat; ondo irabiatu ondoren, likidoa bazter utzi, eta izotza soilik gorde; izotz horren gainean gin hutsa bota, astindu eta listo. Hori da dena, gaindiezina –ea nor ausartzen den orain esatera zutabe hauek ez dutela ezertarako balio–.

Hori bai, ez nuen hain nostalgiko gogoratzen: “Haurtzaroa Erdi Aroan pasatzeko zortea izan nuen. Garai mingarria nahi bada, materialki; baina espiritualki bikaina. Gaur egungoaz erabat bestelakoa”. Bat baino gehiago dira halakoak. Eta niri nostalgia ez zait batiere interesatzen, nahiz eta inoiz sentitzera iritsi naizen –are bizi izan ez ditudan gauzekiko–. Eta interesatuko balitzait ere, Axular irakurri dut: “Ioana ioan, etorkizuna etorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik”. Eta Agota Kristof: “Atzo dena zen ederrago”, dio; baina jarraian esateko: “Oraina besterik ez dago”. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

“NOLA DA POSIBLE MASKARA GABE ERDITZEKO AUKERA EZ EMATEA?”

HAURRAK ERE BAI PLATAFORMAKO EMAKUME HAURDUNA

“Nola da posible fisikoki, emozionalki zein mentalki horren garrantzitsua den bizitzako momentu horretan maskara gabe erditzeko aukera ez ematea? Nola da posible arnasketak izugarritzko garrantzia duen prozesu natural batean? Ez litzateke nahikoa laguntzen duten profesionalek FPP2 edo FPP3 maskara eramatea?”. Kontsulta eta ekografietan lagunduta ezin joatea eta erditze aurreko laguntza taldeak eta erditze osteko edoskitze taldeak bertan behera gelditzea ere kritikatu du. **ARGIA.EUS (2021/03/02)**

